

ERABAKIA, 2025ko AZAROAREN 07koa, IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA UPV/EHUko IRAKASLEAK ORDEZKATZEKO BEHARRAK BETETZEKO LAN POLTSA OSAGARRI ZABALDU/BERRIETAN ETA DOKTOREEN LAN POLTSETAN SARTZEKO LEHIAKETA PUBLIKOAN ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDATA (ERANSKINEAN AIPATUTAKO POLTSAK).

Lehenengoa.- 2025ko uztailaren 02ko Erabakiaren bidez, deialdi publikoa egin zen UPV/EHUko irakasleen ordezkapenak egiteko izangaiak lan-poltsa zabaldu/berrietan sartzeko.

Bigarrena.- Aipatutako lehiaketan eskabideak aurkezteko epea 2025ko uztailaren 22an amaitu zen. Hala ere, Errektorearen Erabakiaren bidez eskabideak aurkezteko epea luzatu zen, 2025ko uztailaren 24 arte.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Kasu honetan honako hauek aplikatu behar dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (martxoaren 12ko EHAA); Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzekoa (otsailaren 3ko EHAA); Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 31ko Erabakia, UPV/EHUko irakasleen ordezkapenak egiteko izangaien zerrenda egin eta kudeatzeko Araudia onartzen duena (2022ko maiatzaren 18ko EHAA); deialdia egiten duen 2025ko uztailaren 02ko Erabakia; eta gainerako arau orokorrak eta horiekin bat datozenak.

Bigarrena.- Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eskumena du, eskuordetzaz, erabaki hau emateko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2021eko urtarrilaren 28an gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko emandako erabakiak.

Hirugarrena.- Ordezkapenak egiteko izangaiak lan poltsetan sartzeko lehiaketa publikoaren deialdia egiten duen 2025ko uztailaren 02ko Erabakia ezartzen duenez, eskabideak onartzeko epea amaituta, Unibertsitateko errektoreak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko du Irakasle eta Ikertzaileen Ataleko

iragarki taula elektronikoa eta Unibertsitatearen webgunean. Zerrenda hori interesdunei jakinaraziko zaie, eta 10 eguneko epea irekiko da, zerrenda hori EHUko Enplegu Atarian argitaratzen den egunetik aurrera, akatsak zuzentzeko eta horren aurkako erreklamazioa aurkezteko.

Horregatik guztiagatik, eta eman zaizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Onartzea UPV/EHUko irakasleak ordezkatzeko beharrak betetzeko lan poltsa osagarri berrietan eta doktoreen lan poltsetan sartzeko lehiaketa publikoan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda (eranskinean aipatutako lan poltsak). Lehiaketa horretarako deialdia egin zen 2025eko uztailaren 02ko Erabakiaren bidez.

Bigarrena.- Argitaratzea erabaki hau Irakasleen eta Ikertzaileen Ataleko iragarki taulan eta Unibertsitatearen webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda horren aurka, eta akatsak zuzendu, **2025ko azaroaren 21era arte** (egun hori barne).

Dokumentazioa zuzentzeko eta erreklamazioa egiteko, eskaera aurkeztu behar da UPV/EHUko erregistro elektronikoa bitartez ([Egoitza elektronikoa - UPV/EHU - ehu.eus](https://ehu.eus)). Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili beharko da: UPV/EHUko langileen ziurtagiri elektronikoa, Izenpearen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Ziguaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, deialdiaren oinarrietan aurreikusitakoaren arabera, UPV/EHUren erregistro elektronikoa bidez aurkeztu ahal izango da, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz (urriaren 2ko Estatuko Aldizkari Ofiziala).

Erregistro Elektronikoa erabiliz gero, «Jasotzailea» atalean, lehenik eta behin «Irakasle-ikertzaileen Errektoreordetza» adierazi beharko da, eta, bigarrenik, «Deialdi eta Lehiaketen Unitatea» (U02000368). (UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakia, UPV/EHUrekiko harreman elektronikoa interes duten pertsonen eta bertan lan egiten duten langileen identifikazio eta sinadura elektronikoa buruzko jarraibidea onartzen duena).

Era berean, sektore publikoko edozein erakundetako erregistro elektronikoetan aurkeztu ahal izango da, eta, salbuespenezko kasuetan, UPV/EHUko erregistro gaitan laguntzeko bulegoetan.

Leioa, 2025ko azaroaren 07a

ERREKTOREA

Izenpea eskuordetuta (Errektorearen 2025eko urtarrilaren 30ko Erabakia, 2025/02/19ko EHAA)

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea.

Izpta.: Efren Areskurrinaga Mirandona



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ERANSKINA

Argitaretzen da UPV/EHUko irakasleak ordezkatzeko beharrak betetzeko lan poltsa osagarri zabaldu 7 berrietan eta doktoreen lan poltsetan sartzeko lehiaketa publikoan (2025eko uztailaren 2ko Erabakiaren bidez egindako deialdia) onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrrenda las-poltsa hauetarako: 2, 6, 13, 14, 43, 44, 47, 48, 300, 301, 317, 321, 322, 332, 334, 335, 337, 340, 354, 355, 365, 367, 394, 395, 396, 397, 407, 408, 411, 412, 413, 421, 427, 428, 429, 430, 436, 437, 444, 445, 452, 453, 458, 459, 460, 461, 462, 463, 473, 482, 483, 497 eta 498.